

## **03/16 AKTA**

**TOKIKO GOBERNU  
BATZARRAK 2016KO  
APIRILAREN 20AN EGINDAKO  
APARTEKO BILKURA.**

## **ETORRITAKO JAUN-ANDEREA**

### **ALKATEA**

María Isabel LANDA GAUBEKA and.

### **ZINEGOTZIAK**

Aitor MIÑAMBRES AMEZAGA jn.  
Nerea JIMENEZ FERNANDEZ and.

### **IDAZKARIA**

Juan Pablo ARNEDO ACEBO jn.,  
ekitaldiaren fedea eman duena.

Berangoko Udaletxean, Tokiko Gobernu Batzarraren bilkuretarako lokalean, bi mila eta hamaseiko apirilaren hogeian, lehenengo deialdian, goian adierazitako zinegotziak batzartu dira, denak ere Tokiko Gobernu Batzarreko kideak, eta alkate anderea den María Isabel Landa Gaubeka and. izan da batzarburua; Miren Izaskun Zubiaur Zarraga andreak ezin etorria zuritu egin du alde zurretik.

Goizeko 8:00ak direla, alkate-udalburu andreak bilera hasi dela adierazi du, behin bilera egiteko behar besteko quoruma dagoela egiaztatu ondoren, AJAren 113.1.c) artikuluan xedatutakoaren arabera. Jarraian, ebatzi beharreko gaiak aztertu eta eztabaidatzeari ekin diote eta ondoko erabakiak hartu dituzte

## **ACTA 03/16**

**SESIÓN EXTRAORDINARIA  
CELEBRADA POR LA JUNTA DE  
GOBIERNO LOCAL EL 20 DE  
ABRIL DE 2016.**

## **ASISTENTES**

### **ALCALDESA**

D<sup>a</sup>. María Isabel LANDA GAUBEKA

### **CONCEJALES**

D. Aitor MIÑAMBRES AMEZAGA  
D<sup>a</sup>. Nerea JIMENEZ FERNANDEZ

### **SECRETARIO**

D. Juan Pablo ARNEDO ACEBO, que da fé del acto.

En el local destinado al efecto en el edificio de la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Berango, a veinte de abril de dos mil dieciséis, se reunieron en primera convocatoria bajo la presidencia de la Sra. Alcaldesa, D<sup>a</sup>. María Isabel Landa Gaubeka, los Srs. Concejales arriba indicados, miembros de esta Junta de Gobierno Local, a excepción de D<sup>a</sup>. Miren Izaskun Zubiaur Zarraga, cuya ausencia fue justificada con la suficiente antelación.

Siendo las 8,00 horas, la Sra. Alcaldesa declara abierto el acto una vez comprobada la existencia del quórum de asistencia preciso para que se pueda iniciar, de acuerdo con el artículo 113.1.c) del R.O.F., procediéndose a continuación al examen y deliberación de los asuntos a resolver, adoptándose los siguientes

## **ERABAKIAK**

### **1.- AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.**

Alkate and.ak galde egin du ea Tokiko Gobernu Batzarreko kideren batek 2016ko apirilaren 6an egindako azken bilkuraren aktari oharrik egin behar dion.

Ez da oharrik egin eta batzordekideek aho batez onartu dute akta.

### **2.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN OHIKO BILKUREN EGUNAK EZARTZEKO ERA ALDATZEA.**

Ekainaren 18ko 393/2015 zk.ko alkatetza ebazpena aztertu da. Ebazpen horren bigarren puntuan, Tokiko Gobernu Batzordearen ohiko bilkurak hilean behin egingo direla ezartzen da, eta hilabete bakoitzeko lehen asteartean, 8:00etan, egingo direla finkatzen da. Alkate and.ak, Tokiko Gobernu Batzarreko kideek proposatuta, Tokiko Gobernu Batzarraren ohiko bilkurak hilabete bakoitzeko lehen asteazkenean egingo direla ezartzea bozkatzeko agindu du.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bere kideen adostasunez, honako hau ERABAKI DU

**BAKARRA.-** Tokiko Gobernu Batzarraren ohiko bilkurak egiteko ezarri den eguna aldatzea, eta hilabete bakoitzeko lehen asteazkenean, 8:00etan, egingo direla ezartzea.

## **ACUERDOS**

### **1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR.**

La Sra. Alcaldesa pregunta si algún miembro de la Junta de Gobierno Local tiene que hacer alguna observación al acta de la última sesión, celebrada el día 6 de abril de 2016.

Al no formularse ninguna es aprobada por unanimidad de sus miembros.

### **2.- MODIFICACIÓN DE LA FIJACIÓN DE LA CELEBRACIÓN DE LAS SESIONES ORDINARIAS DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL.**

Vista la Resolución de Alcaldía nº 393/2015, de 18 de junio, en su punto segundo, que establece una periodicidad mensual para las sesiones ordinarias de la Junta de Gobierno Local, fijando su celebración el primer martes del mes a las 8:00 horas, la Sra. Alcaldesa a propuesta de los miembros de la Junta de Gobierno local somete a votación el fijar la celebración de las sesiones ordinarias de la Junta de Gobierno Local el primer miércoles del mes a las 8:00 horas.

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad de sus miembros, ACUERDA

**ÚNICA.-** Modificar la fijación de la celebración de las sesiones ordinarias de la Junta de Gobierno Local estableciendo la celebración de las mismas el primer miércoles del mes a las 8:00 horas.

### **3.- OBRAK, ZERBITZUAK ETA HIRIGINTZA**

3.1.- BERANGOKO LANDAIDA GOIKOA URBANIZATZEKO JARDUKETA-PROGRAMAREN ALDAKETA BEHIN BETIKO ONARTZEA, ETA ALEGAZIOEI ERANTZUNA EMATEA.

Berangoko Landaida Goikoa urbanizatzeko jarduketa-programaren aldaketa behin betiko onartzeko, eta alegazioei erantzuteko espedientea aztertu da.

Ebazpena eman ahal izateko, dokumentazioa falta dela ikusita.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bere kideen adostasunez, honako hau ERABAKI DU

LEHENENGOA.- Ebazpena eman barik uztea, dokumentazio egokia aurkeztu arte.

BIGARRENA.- Jarduketa bultzatu dutenei erabaki honen berri ematea.

3.2.- BERANGOKO LANDAIDA GOIKOA BIRPARTZELATZEKO PROIEKTUA BEHIN BETIKO ONARTZEA ETA ALEGAZIOEI ERANTZUNA EMATEA.

Berangoko Landaida Goikoa birpartzelatzeko proiektua behin betiko onartzeko, eta alegazioei erantzuteko espedientea aztertu da.

Ebazpena eman ahal izateko, dokumentazioa falta dela ikusita.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bere kideen adostasunez, honako hau

### **3.- OBRAS, SERVICIOS Y URBANISMO**

3.1.- CONTESTACIÓN A LAS ALEGACIONES Y APROBACIÓN DEFINITIVA DE LA MODIFICACIÓN DEL PROGRAMA DE ACTUACIÓN URBANIZADORA DE LANDAIDA GOIKOA DE BERANGO.

Examinado el expediente relativo a la contestación a las alegaciones y aprobación definitiva de la modificación del Programa de Actuación Urbanizadora de Landaida Goikoa de Berango.

Vista la falta de documentación para proceder a su resolución,

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad de sus miembros, ACUERDA

PRIMERA.- Dejar pendiente de resolución hasta la presentación de la documentación pertinente.

SEGUNDA.- Trasladar el presente acuerdo a los impulsores de la actuación.

3.2.- CONTESTACIÓN A LAS ALEGACIONES Y APROBACIÓN DEFINITIVA DEL PROYECTO DE REPARCELACIÓN DE LANDAIDA GOIKOA DE BERANGO.

Examinado el expediente relativo a la contestación a las alegaciones y aprobación definitiva del Proyecto de Reparcelación de Landaida Goikoa de Berango.

Vista la falta de documentación para proceder a su resolución,

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad de sus miembros,

## ERABAKI DU

LEHENENGOA.- Ebazpena eman barik uztea, dokumentazio egokia aurkeztu arte.

BIGARRENA.- Jarduketa bultzatu dutenei erabaki honen berri ematea.

Eta jorratzeko beste gairik egon ez denez gero, alkate and.ak bilkura amaitutzat jo du, goizeko zortziak eta erdietan. Hori guztiaren akta hau egin da, nirekin batera alkate and.ak sinatzen duena eta nik, idazkariak, ziurtatzen dut.

ALKATEA/LA ALCALDESA

## ACUERDA

PRIMERA.- Dejar pendiente de resolución hasta la presentación de la documentación pertinente.

SEGUNDA.- Trasladar el presente acuerdo a los impulsores de la actuación.

Y no habiendo más asuntos que tratar, la Sra. Alcaldesa levanta la sesión siendo las ocho horas y treinta minutos. De todo lo cual se extiende la presente acta que firma conmigo la Sra. Alcaldesa, de lo que, como Secretario, certifico.

IDAZKARIA/EL SECRETARIO